



mugitu



ALDAKETA HANDIEN HASIERA DIREN EKINTZA

txikiak

Adina: 2 - 12 (adin bakoitzera egokitu daiteke)

Helburua: Ikasleak elkartasun-ekintza txikiak egitera bultzatzea, denak elkarrekin aldaketa handiak hasteko aukera izan dezaten.

Garapena:

Jiwa pertsonaia haril batekin agertzen da ikasleei "Eraldatzen hasteko prest" elkartasun-kanpaina azaltzeko, eta honako jarduera hau proposatzen die.

Gela bakoitzean haril bat erabiliko da "hari gidari" gisa.

Egunero edo astean behin (dinamizatzaileak erabakiko du) 5 neska-mutili erronka solidario bat proposatuko gaie. Horretarako, harila pasatuko da. Harila eskuetara erortzen zaion pertsonak ekintza solidario bat (handia zein txikia) egiteko konpromisoa hartuko du. Ekintza egun horretan bertan egin dezake edo astean zehar, eta berdin dio eskolan, etxean edo beste edonon. Gelan bertan lagundu dakieke ideiak emanez.

Harilaren erronkaren hurrengo saioan, hasierako 5 ikasleek beren esperientzia azalduko dute eta beren ekintza post-it batean idatziko dute.

Post-ita harilaren hari zati batean itsatsiko da (paperak honda ez daitezen, hobe da haria moztea eta gero hari berriari lotzea) eta gelan eskegiko da.

Erronka egin duten lehen 5 hurrek hurrengo 5ak aukeratuko dituzte eta nahi duten ekintza solidarioa egiteko erronka botako diete.

Prozesu bera egingo da gela osoak bere ekintza solidarioa egin arte eta gero ekintza guztiak gelak eskegiko dira.

Ikasgelak hurbil badaude, hariak beste geletako hariekin lotu ditzakezue. Horrela agerian jarriko da ekintza txiki batzuk aldaketa handien hasiera izan daitezkeela denon artean egiten bada.



Materiala:

Harila., Post-itak,
Zelo, eransgarria edo,
grapagailua..

